

Kristau-erresumetako gizartea hiru talde edo estamentutan banatzen zen: **noblezia**, **kleroa** eta **nekazariak**.

■ **Noblezia** zaldunek osatzen zuten; zaldunak erregeren **basailu** ziren, hots, haren mendekoak. Gazteluetan bizi ziren eta gerra zuten jarduera nagusi.

■ **Kleroa** apezpiku, abade, apaiz, monje eta mojek osatzen zuten. Monasterioetan bizi ziren eta kultura eta otoitz egitea ziren haien egitekoak.

■ **Nekazariak** herrixketan bizi ziren, eta lurra lantzen zuten. Gehienak **jopuak** ziren, hots, noble edo abade baten mendekoak, eta eskubidegabeak.



Erdi Aroko herrixka. A. Gaztelua. B. Etxebizitzak. C. Eliza. D. Soroak. E. Errota.

Birpopulaketa

Errege-erregina kristauak konkistatzen ari ziren lurak okupatzeko pertsonak behar zituzten, lur horiek landu zein defenda zitzaten. Okupazio horri **birpopulaketa** esaten zaio.

Nekazari **judu** eta **mudejar** asko beren lurretan geratu ziren lurroko errege-erregina kristauak konkistatu zituztenean ere. Horiez gain, lur berriak birpopulatzeraz iparraldeko **kristauak** eta Al Andalusetik ihes egin zuten **mozarabiarrak** ere joan ziren.

Horren ondorioz, kristau-erresumetan hiru erlijiotako pertsonak bizi ziren elkarrekin: kristauak, musulmanak, bai eta juduak ere.

Konkistatutako lurak oso handiak zirenean eta haietan jende gutxi bizi zenean, errege-erreginek noble eta monasterio nagusiei ematen zizkieten; horrela, azkenok lur-jabe handi bihurtu ziren. Lurralde zabal horiek **jaurerriak** ziren.

Jaurerriek herrialde txikiak bezala funtzionatzen zuten. **Jaunek**, hots, lurren jabeek, honako eskumen hauek zituzten beren lurretan: justizia banatzea, beren armada izatea, zergak kobratzea eta lanean zituzten nekazariak kontrolatzea, bai eta beren txanpon propioa egitea ere.

Bizimodua Erdi Aroko hiri batean

Erdi Aroan, biztanleriaren gehiengoa nekazaria zen eta herrixketan bizi zen. Baina XIII. mendean, komertzioaren hazkundeari esker, hiriak hazi egin ziren.

Hiria auzo edo **burgutan** banatzen zen, eta bertako biztanleak **burgesak** ziren. Gehienak artisau eta merkatoriak ziren, eta merkataritzan aritzen ziren.

Erdi Aroko hiriak **harresiz** inguratuta zeuden. Eraikin nabarmenenak **katedrala**, hots, eliza nagusia, **udaletxea** eta noble edo merkatori aberatsenen **jauregiak** ziren.

Azokaren plazan merkatori eta nekazariak beren saltokiak jartzen zituzten.

Hiriak **kontseilu** batek gobernatzen zituen; kontseiluan artisau eta merkatarien ordezkariak hartzen zuten parte. Gaur egungo udalen jatorria dira.



Erdi Aroko hiria. A. Gaztelua. B. Harresiak. C. Jauregia. D. Azokaren plaza. E. Katedrala. F. Udaletxea. G. Eliza.

Artisautza

Erdi Aroko hirietako biztanle asko **artisansauak** ziren (arotzak, ehuleak, errementariak...) eta **tailer** edo **lantegietan** egiten zuten lan.

Lanbide bera zuten artisauak **gremiotan** bildu ohi ziren.

Artisansauak hiru kategoriatan banantzen ziren: **maisauak** (tailerren jabeak), **ofizialak** eta **aprendizak**.

Merkataritza

Merkataritza jarduera oso garrantzitsua izan zen Erdi Aroaren amaieran. **Merkatoriak** hirietan bizi ziren, **merkataritza-azokatan** biltzen ziren eta produktuak plazetan trukatzeko zituzten.

Merkataritzak oparotasuna ekarri zuen hiri batzuetara. Hori dela eta, eraikin handiago eta ikusgarriagoak eraiki ziren, hala nola jauregiak, katedralak eta **unibertsitateak**. Azken horiek irakaskuntza-zentroak ziren eta entzute handia ematen zieten hiriei.

JARDUERA ➤ Birpasatu irakurritako guztia [hemen](#) [klikatuz](#).